



1995eko martxoak 17

100. zenbakia

Astekaria



elgoi



**M A P F R E**

**ASEGURU ETXEA**

San Frantzisko 40 behea. ☎ 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR

accent

Hyundai Berria

# ACCENTATU ZAITEZ

Hiru, lau eta bost ateko bertsoiak.

**1.335.000 ptatik\***.

Gainera Hyundaik 3 urteko garantia

eta 24 orduko asistentzia eskaintzen dizkizu.

Accentatu zaitez.

Zatoz zure kontsesionariora.



BERTSIOEN ARABERAKO EKIPAMENDUAK: **Airbag**, **alboetako babes egitura**, aire egokituia, direkzio lagundua, atzeranzko ispilu elektrikoa, maletgia eta depositoa barrutik zabaltzeko aukera, antena elektrikoa, eserleku eta gerriko erregulagarriak, ixte zentralizatua, leiho igogailu elektrikoak, atzeko burupausagailuak, irratikaset estereoa.

1300 eta 1500 cc bitarteko MOTORIZAZIOAK, 82 eta 90 z.ko potentziarekin.

Injekzio puntuanizdun 12 balbulatuko motorrak.

## BANATZAILE OFIZIALAK:

**ELGOIBAR:** MENDARO AUTOAK, S.A. Olaso Kalea, 25. 20870 **ELGOIBAR**. Tel 74 32 00.

**MENDARO:** MENDARO AUTOAK, S.A. Errep. Nazionala 634, Km. 52. 20850 **MENDARO**. Tel 75 50 72.

**DONOSTIA:** MENDARO AUTOAK, S.A. Zurriola Etorbidea, 16 - Behea. 20002 **DONOSTIA**. Tel. 28 33 33.

\* Penintsula eta Balearretarako proposatutako prezioak,  
BEZa, garraioa eta matrikulazio zergak barne.

100.000 km artekoa.  
(Piezak eta eskulana)





## ZENBAT BURU

## HAINBAT ABURU

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**  
Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**  
Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**  
Alberto Agirreazaldegi.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**  
Anjel Ugarteburu.

**ERREDAKZIO KONTSEILUA:**  
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.

**KAZETARIAK:**  
Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEAK:**  
Maite Rementeria,  
Edu Sanz.

**PUBUZITATEA:**  
Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRATZIOA:**  
Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortoste.

**KOLABORATZAILEAK:**  
Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Julian Mujika, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**  
Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.300 ale  
**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92  
**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Zorionak ale askotarako

**O**rain dela bi urte pasatxo, Olentzero Egunean jaio zen **BARREN** aldizkari hau.

Ordutik, astero-astero, hutsik egin gabe, Elgoibarko eta Mendaroko etxe gehienetan sartzen da ostiralero.

Haseran beldur zen jendea. Ba ote dago hainbeste notizia eta protagonista, astero aldizkari bat betetzeko? Ez ote da gehiegi? Hamargarren alera iritxiko al da? Halako eta antzeko galderak egiten zuen jendeak. Eta ulertzekoa da. Ezagutzen ez den gauza batean sinestea hain zaila da!

Orduan maiztasuna zegoen eztabaidan. Aldizkari bat egitea ez zen gaizki ikusten, baina asterokoa izatea zen kuestionatzen zena.

Asterokotasunak badu bai zailtasuna, baina ezin uka indar berezi bat duela. Ziklo natural bat da astea eta irakurleak oso ondo jarraitzen ditu asterokoa aste horretako gertakizunak eta ondorengoan etorriko direnak.

**BARREN** egiten dugunontzat gogor xamarra da asterokotasuna. Egunero lanean asteko alea prestatzen eta inprimategira bidalitakoan, hurrengo alearekin hasi behar atsedenek gabe. Presakako lana da gurea eta presak hanka-sartzeko arriskua dakar. Baina guk jakin badakigu arrisku horrekin gabiltzala eta gure lanaren osagarrietako bat dela. Zuk, irakurle,

ulertuko duzu hori eta intentzio txarrik gabe egindako hutsak barkatuko dituzu, noski.

**BARREN** umezurtz jaio zen baina berehala aurkitu zituen lagun mordoska eta egun irakurle finez inguratua dago. Lankideak ere ez zaizkio falta **BARREN**ni. Iritzi-artikuluak, argazkiak, informazioa, eskutitzak, kexak eta abar luze bat iristen dira astero **BARREN**era lankideen eskutik eta, horienatik ez balitz, ez luke izango orain duen arrakasta.

Oraintsu egin dugun ikerketa batek adierazten duenez elgoibartar gehienek irakurtzen dute **BARREN**. Ostiral arratsaldean etortzeko zain egoten da jendea **BARREN**, barrenetik edo gainetik, ikusteko. Gehiengoak oso gustura irakurtzen du, nahiz eta banaka batzuentzat ez izan gogoko. Normala da. Zaila da denon gustukoa egitea nahiz eta gu horretan saiatu. Gu ahalegintzen gara baina ez dago ezer denon gustuko. Beti ez dugu asmatuko, baina asmatzen dugunean ere, izaten da ados ez dagoenik. Zer egingo diogu ba?

Asmatu edo kale egin, irakurle asko daude astero **BARREN**en zain. Zuen laguntza eta fideltasunagatik **BARREN**zale guztioi eskerrikasko **BARREN**etik.

**Alberto Agirreazaldegi**  
ZUZENDARIA

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## KEXAK

- Irakurle batek honako kexa bidali du BARREnera: ez omen zaio ondo iruditzen bi entierro batera egitea. Alde batetik intimitate falta suposatzen duelako eta bestetik jende asko kanpoan geratu behar izaten delako. Gainera, bi familia batera egoteak egoera arraroa eta inkomodoa sortzen du.

- Erredakziora iritsi zitzaigun bigarren kexa *Leizarpe* espeleologi taldeak antolatu duen erakusketarekin du zerikusia. Izan ere, erakusketan dauden argibide guztiak edo ia guztiak erdaraz daude eta kexa bidali duen irakurleari ez omen zaio ondo iruditzen, gutxienez erdaraz eta euskaraz egon beharko lirateke bere ustez.



## TXALOKAK

- Irakurle batek Sigmako zubian egoten diren udaltzainak txalotu nahi ditu. Beraien lanari esker, gaur egun ez omen dira lehen egoten ziren kotxe ilarak sortzen zona horretan.

- Gazte batek Gazte Asanblada txalotu nahi du komunikatu batean sexu berdinasuna aldarrikatu dutelako. Eta bide batez, bide horretatik segitzera animatu nahi ditu.

## ESKUTITZAK

### Berdintasuna=Sexismoa?

**J**oan zen astean, martxoaren 8an, emakume langilearen eguna izan zen. Lehenik eta behin, emakume guztiak zoriondu nahiko genituzke baina, Mekanikan, LOGSEko pasiloan behinik behin, Feminismoaren alde burutu zen ekintza bat salatu nahi dugu.

Berdintasunaren alde gauden bezala, feminismoa eta matxismoa bezalako balore ustelak errepika ez daitezen nahi dugu. Emakumearen eguna zenez, zentru honetako emakumeek ekintza batzuk burutu zituzten, horien artean bilera bat eta ondoren, kartel batzuk jarri zituzten.

Berdintasunerako bidean mutilok dugun garrantzia dela eta, arrarotzat jotzen dugu ekintza horietan parte hartzeko mutiloi ez deitu izana eta lotsagarria iruditzen zaigu bilera horretara mutiloi sartzen ez uztea. Kartelen eduki sexista (kasu honetan feminista) ere salatu nahi dugu. Eta, nola ez, beste batzuk kartel horien gainean jarri zituzten hitz matxistak. Azkenik, idatzi honekin galdera bat luzatu nahi dugu, ZER DA ZURETZAT BERDINTASUNA?

**TEKeko ikasle batzuk (LOGSE)**

### Zuhaitz astialdi taldea

**D**uela aste batzuk, otsailaren 10ean hain zuzen, larriturik idatzi zuen guraso baten eskutitza irakurri genuen BARREn. Ordutik denboratxo pasa bada ere, ez dugu aukerarik galdu nahi erantzuna eman ahal izateko. Guraso horren ardura, bere alaba (14 urteko neska) beste ezer ez zegoela eta tabernaz taberna ibiltzen hasi zela omen zen.

Adin horretarako Elgoibarren ezer ez zegoela irakurtzeak min egin zigun Zuhaitz Aisialdi Taldeko (ZAT) partaideoi. Izan ere, 1987. urtean hasita eta gaurdaino, 11-12 urtetik 14-15 urte bitarteko gaztetxoekin dihardugu lanean. Eta beti zorte eta ordutegi bera ez badugu izan ere, aurten larunbat arratsaldetan elkartzen gara gaztetxoekin 4etatik 6,30etara (gutxi gora behera).

Agian ez da behar adinako erantzuna larunbat arratsaldeetako arazoarentzat, baina besterik ezean, ezer ez baino gehiago da eta hori argitu nahi genuen: gehiegi ez bada ere, musutruk dabilen hezitzaile talde gazte batek ahalegina egiten du eta hori errekonozitu dadin nahi genuke.

**Z.A.T.**

(Zuhaitz Astialdi Taldea)

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



## ERRETRATU ZAHARRA



**E**rretratu berezia gorde nahi izan dizuegu 100. zenbakirako. San Lorentzoko Begoña Juaristik lagatako erretratu benetan zaharra dugu, 1925. urtekoa hain zuzen ere.


Begoñak esan digunez erretratu San Lorentzoko txokoren batean aterata dago eta Migel Arriola Etxeberriaren soltero despedidan elkartu zirenak dira erretratuaz azaltzen direnak (txakurrak ez dakigu despedidan izango ziren ala ez). Soinujoleak Manuel Gelatxo eta Juan Jose Mendikute, "Berdun" errotakoak dira. Hitzak soberan daudenez, bizpahiru minututan erretratuaz gozatzeraz gonbidatu nahi zaituztegu. Gero irakur itzazue euren izen-abizenak.

Tente ezkerretik: Vicente Landajuela (†), Periko Juaristi "Argiñ" (†), Vicente Lizarralde "Agarre" (†), ezezaguna, Jose Arakistain "Soveta" (†), Tomás Zabaleta "Amuskatei" (†), Justino Arakistain (†), Ignacio Eizagirre (†), José Esnaola "Musillo", Juan José Mendikute (†), Ignacio Mendikute "Azaola"

(†), Ramón Eizagirre "Upai" (†), Jose Maria Orbea "Mokoroa" (†), José Agirrebeña (†), José Lizarriturri "Korostizabal" (†), Benito Leiaristi "Aldamar" (†), Joakin Juaristi "Artazo" (†), Basilio Etxaniz "Arostegi" (†) eta Justo Arriola (†).

Lurrean jarrita: José Leiaristi (†), Vicente "Beraseta" (†), Antonia Juaristi (†), Modesto Arriola (†), Pedro Muguruza (†), Juan Juaristi "Artazo", Migel Arriola Etxeberria (†), José Egia "Mokoroa", Andresa Arriola (†), Manuel Sodupe "Gelatxo" (†), Justo Juaristi "Artazo II" (†), Juan José Juaristi "Artazo" (†), Antonia Gabilondo (†), Mateo Mendikute "Azaola", Mateo Orbea, Benito Uranga, Ramón Gurrutxaga (aita) (†), Pedro Iriondo (†), José Maria Aizpitarre "Selandi" (†), Pako Arriola (†) eta Javier Mendikute (†).

Umeak: Ramón Gurrutxaga (semea) (†), José Gurrutxaga (†), Manuel Leiaristi "Aldamar" (†), Tomás Leiaristi "Aldamar", Teodoro Aranberri (†) eta Sabin Arriola.

|   |   |  |
|---|---|--|
|  | <p>DEBA<br/><b>GARAJA</b></p>   | <p><b>LAGUNTZA OFIZIALAK<br/>ETXEBIZITZAK EROSTEKO:</b></p>  |
|   | <p>INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA</p> <p>ARRASATE ☎ 77 13 02<br/>BERGARA ☎ 76 21 80<br/>ELGOIBAR ☎ 74 42 83</p> | <p><b>DEBA GARAIAREN ZERBITZUAK:</b></p> <p>TASAZIOAK, SALEROSKETAN<br/>GESTIO OROKORRA, FISKAL<br/>AHOLKULARITZA, FINANTZAKETA,<br/>(LAGUNTZA OFIZIALAK,<br/>KOMUNITATEAK).</p> |

|   |   |   |
|---|---|---|
|  | <p><b>DEBAPE</b></p> <p><b>INPRIMATEGIA</b><br/>komunikazio grafikoa</p>  | <p>Olaso<br/>industrialdea, 27<br/>Tel: 74 40 55<br/>Faxa: 74 41 78</p> |
|   | <ul style="list-style-type: none"> <li>● DISEINU GRAFIKOA</li> <li>● FOTOKONPOSIZIOA</li> <li>● ERA GUZTITAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK</li> <li>● OFFSET LITOGRAFIA</li> <li>● PUBLIZITATE DISEINUA</li> </ul> |   |



100.

Zenbakira

ERREPORTAIA

# Nola egiten dugu

**1.** Ostegunetan erredakzioa osatzen dugunok Alberto Agirreazaldegi zuzendariarekin elkartzen gara. Batzarrean, datorren asteari begira jarri eta hurrengo zenbakian landuko ditugun gaiak erabakitzen ditugu.

**2.** Maite koordinatze lanetan aritzen da. Kolaboratzaileei



deitu behar zaie egin behar dituzten elkarrizketak gogorarazteko. Beste kasu batzuetan, zenbait atali buruzko artikulua eskatu behar izaten ditugu eta pertsona horiekin telefonoz jartzen gara harremanetan, bai eta elkarrizketatuekin, informazio iturriekin, gehigarrietako kolaboratzaileekin...

**3.** Ainhoa eta Jasone kazetariak dira. Grabadora eta argazki kamera hartu eta kale galdeketa, elkarrizketak, kirol eta kultur informazioa eta abar biltzen dituzte.

**4.** Jasotako informazioa, ordenagailuan sartzen dugu.

**5.** Nekane da publizitatearen ardurduna. Bere esku dago astero-astero BARRENen agertzen den publizitatea eskuratzea. Telefonoz edo bisitak eginez bezeroak lortzen ditu.



6

elgoi **BARREN** 100. zbk.

1995-III-17





# BARREN *astero* ?



**6.** Karreteak amaitu ahala Julian Azkuena eraman eta berak **errebelatzen dizkigu**.

**7.** Edu eta Maite dira maketatzailak. Eduk goizez eta Maitek arratsaldez, kazetariak aurrez ordenagailuan landutako **notiziak eta argazkiak aldizkariaren maketan sartu eta publizitatea diseinatzen dute**. Guztiak ordenagailu zentralean ba-tzen dira.

**8.** Angel Ugarteburu **euskara arduraduna da**. Berak egiten ditu asteazkeneko hizkuntzari dagozkion zuzenketak.

**9.** Erratak irakurri eta zuzenduta daudenean, alea prest dagoenean, guztia diskete batean sartu eta ostegun eguerdian inprentara bidaltzen dugu mensajeroekin.

**10.** Oñatiko Gertu Inprentan, guk bidalitako disketik **fotolitoak** ateratzen dituzte eta hauek **laurak muntatzen dira** hortik plantxa bat ateratzeko.





100.

Zenbaitra

# ERREPORTAIA

**11.** Plantxak inpresoran sartu eta orriak inprimitzen dira. Orri hauek tolestu eta josi ondoren, alea prest dago.

**12.** Josune, *administratzailea*, publizitateko fakturez arduratzen da eta kontabilitatea eramaten du. Horrez gain, harpidetza berriak ordenagailuan sartu ondoren, helbideak inprimitu eta Elgoibartik kanpo bidali behar diren aleetan pegatu eta gero, postetxera eramaten ditu.

**13.** Imanol Larrañaga banatzaileen arduradunak, ostiralero Mendarora eramaten ditu aleak kotxez eta han, gazte talde bat arduratzen da etxez-etxeko banaketaz.

**14.** Alea iritsi ahala, banatzaileak elkartu eta harpidedunen zuzenbideak aldizkarian pegatzen dituzte. Ondoren, bakoitzak zenbait ale hartzen ditu eta berari dagokion zona-ko buzoietan banatzen ditu. **7ak alderako BARREN Elgoibarko etxeetan dago.**








# ARANBARRI

## GRUA ETA PLATAFORMADUN GARRAIOA

*BARRENI eta BARRENEko lantaldeari, ZORIONAK!*

Tel. 74 02 42 Tel. Mugikorra 908-77 06 37 ELGOIBAR



# JUARISTI Aroztegia

Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- ➔ Ez dauka mantenu beharrik
- ➔ Haizea eta urarentzat isolatua
- ➔ Kolore efektu ikusgarriak
- ➔ Betirako leihoak *Zorionak BARREN!*

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA: Ubitatarte, 2 behea. Tel.: 74 13 33      LANTEGIA: Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

# TXIMISTA

## Sagardotegia



**M** Kupeleko sagardoa nahi adina  
**E** Bakailo tortila  
**N** Bakailo takoak piperrekin  
**U** Idi txuletak  
**A** Gazta eta intxaurrak  
**PREZIOA: 2.200 PTA INGURU**

*Aurrez deitu eta enkargatuz gero, hobe!*

**Gudarien Etorbidea, 2 • ☎ 88 11 28 • ORDIZIA**





100.

Zenbakira

## ASTE HONETAN

### Zorionez, BARREN ez da bakarra

1992. urteko abenduan elgoiBARREN astekaria argitaratu zen Elgoibarren. Zorionez, ez da Euskal Herrian argitaratzen den bakarra. Euskaraz idatzitako herri prentsak 1988. urtearen hondarretan hartu zuen indarra, Arrasate Press astekariaren jaiotzarekin, bera izan baitzen aipaturiko ezaugarri horiek euskal prentsari ekarri zizkiona. Geroztik, euskaraz argitaratzen den prentsa lokala haziz joan da etengabe herrialde guztietan.



Aldizkari guzti hauek hainbat ezaugarri dituzte amankomunean: euskara hutsez idatzitakoak, kultur edo hizkuntz elkarte bat dute atzean, dohainik banatzen dira e.a. Baina nire ustez, aldizkari hauen lokarrik sendoena helburu nagusia da: euskaldunen arteko sarea egiten laguntzea eta euskararen erabilera areagotzea.

Ziur naiz lan horretan asmatzen jarraituko duzuela elgoibartarrok.

**MARI KARMEN GARMENDIA**

KULTUR SAILBURUA

"Aldizkari hauen lokarrik sendoena euskaldunen arteko sarea egiten laguntzea eta euskararen erabilera areagotzea da"

**MARI KARMEN GARMENDIA**

"BARREN Euskal Herriko herri-aldizkariaren eredu bihurtu da"

**JOXE ARANZABAL**

### Bateko ehun eman du fruitu

Ostiralak joan ostiralak etorri, 1992ko Olentzeroren kanastan iritsi zen BARREN herri-aldizkaria 100. zenbakira heldu da. Bi urte t'ardi eskas hauetan aldizkaria egiten duen taldeak argi utzi du BARREN inbertsio ona izan dela elgoibartarrentzat. Bost langile izanik, iaz 23 milioi pezetako aurrekontua izan zuen. Bere autofinantziazio maila %50era iristen da, hor nonbait. Gainerakoa herri-erakundeen (Elgoibarko Udala, Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia) diru laguntzetatik jasotzen du. Ekimen pribatu eta publikoaren arteko elkarlanaren adibide ona, beraz.

Trukean, BARRENek demokratizatu egin du informazioa Elgoibarren, iri-tzi desberdinen plaza bilakatu da eta eskaparate ezin hobea herriko merkatarientzat. Euskal Herriko herri-aldizkariaren eredu ere bihurtu da, sortu zenetik besteontzako hainbat aportazio interesgarri egin baititu. Hori guztia euskaraz, natural-natural.

Bejondeizuela, bada, elgoibartarroi eta BARREN sortzen eta sendotzen lagundu duzuen guztioi. Mila zorion eta urte askotarako.

**JOXE ARANZABAL**

HERRI PRENTSAN ADITUA

*okindegia eta gozotegia*

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35  
**ELGOIBAR**

**IPINTZA**  
**Pinturak**  
**DEKORATZAILEA**

- Pintura eta paperen salmenta
- Mocketak eta sintasolak jartzen ditugu
- Zolu eta hormen apaindurak
- Kortinak saldu eta ipini
- Kortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Foruen Plaza 4 ☐ 74 04 40





## Heroe txikien handitasuna

BARREnek 100. zenbakia plaza-ratu duen honetan, ZORIONAK lehenbizi.

EHUN zenbaki borobila da. Gaurkotasun handikoa gainera. Gauza garrantzitsu asko ehuneko hainbestean neurtu ohi da. Gobernuai eta aginte guneei ere ehun eguneko epea ematen zaie bere balioa frogatzeko.



BARREnek, egunak ez baino, aleak jarri ditu mahai gainean. Euskara jatorrean hamaika asko bada zer ez ote da ehun. Gure arteko landare batzuk ere, bere xumean handi eta beharrezkoak direnak, zientoka saltzen dira.

Jarraitu bada ELGOIBARKO baratzetan hazia ereiten, soro handiak nagusi diren honetan, baratza txikien ugaritasuna inoiz baino beharrezkoagoa dugu eta.

Bereziki, ereiten dena euskara, euskalkiak, eta titular handietatik kanpo dauden heroe txikiak badira.

**JOSE MARI ISASTI**

EUSKADI IRRATIKO KAZETARIA

"Baratza txikien ugaritasuna beharrezkoa dugu. Bereziki, ereiten dena euskara, euskalkiak, eta titular handietatik kanpo dauden heroe txikiak badira"

●  
**JOSE MARI ISASTI**  
●

"Bi urte pasatxo behar izan ditu BARREnek elgoibartarren erreferentzia puntu izateko"

●  
**AITOR ZABALA**  
●

## Hitzarmenaren arrakasta

BARREN astekariaren presentzia Elgoibarko paisaia Roldanen izena egunkarietako lehen orrialdetan irakurtzea bezain arrunta bihurtu da, Aznarren ezpainetan dimisio hitza entzutea bezain arrunta edo Claudia Schiffer-en gorputz liraina planetan bizi diren gizonezko gehienen fantasietan agertzea bezain arrunta. Bi urte pasatxo behar izan ditu BARREnek milaka elgoibartarren erreferentzia puntu izateko eta erabat asaldatu ziren ostiralean sukaldako mahai gainean Elgoibarko Izarraren argitarapena aurkituko ez balute.


Udaletxeak euskarazko herri astekari baten beharra ikusi du eta horren adierazgarri eta emaitza dira urtero Elgoibarko Izarrarekin sinatzen dituzten elkarlaneko hitzarmenak.

Hitzarmen hauen bidez ikusten da posible dela Udaletxearen eta elkarte herritarren arteko elkarlana. Komunikabideetako orrialdeetan agertzen diren lekuan lekuko "rifi-rafe"etan inplikaturako guztiek, Udaletxeko arduradun politikoei barne, eredu izan beharko lukete kasu hau beraien arteko ezberdintasunak konpontzerako orduan. Bizi kalitate hobea lortzeko esfortzua egiterako orduan ez da inor kanpoan geratu behar, eta Elgoibartarren dazkagun droga, alkohol edota langabezia arazoak eta Udaletxearen eta gazteriaren sektore baten arteko enfrontamenduak ere hitzarmen baten beharra dute.



**AITOR ZABALA**

EL DIARIO VASCO-KO BERRIEMALEA






100.

Zenbaita

## ETA ZURE USTEZ?

# Zer iruditzen zaizu **BARREN?**



**YOLANDA MUNIN**  
11 urte, ikaslea

Politxa da eta gainera Elgoibarren gertatzen dan guztia jartzen dau. Gehixen gustatzen jatana TxikiBARREN da, umiak urtetzen diazelako eta asmakizunak ere bai.



**ROBERTO DE LAS HERAS**  
19 urte, ikaslea

Ondo dao, nik irakurtzen dot behintzat, haseratik bukaerara arte. Elgoibarko gauzak jakitzeko eta urtetzen dan jendia ikusteko ondo dao.



**MIREN BEREZIARTUA**  
11 urte, ikaslea

Euskarari on asko itxen dion aldizkaria dala iruditzen jata. Galderak gustatzen jataz gehixen eta zein pertsona agertzen diazen ikustea.



**MAITE BARRUETABENA**  
38 urte, etxeoandrea

Oso ondo, ostiraletan zai egoten naiz BARREN hartzeko. Antigualeko fotografixeri begiratzen diuet lehenengo, eta hori ez naizela hemen jaixotakua!



**PACO IGLESIAS**  
51 urte, industrial

Interesgarria iruditzen zait, herritarrak elkar hurbiltzeko eta herriko gertaeren berri emateko. Agian zenbait atal gaztelaraz izango balira, hobe.



**ISABEL GUERRA**  
42 urte, irakaslea

Oso gustura irakurtzen dut. Iritzi artikulua gustatzen zaizkit eta informazioa ere jasotzen dut bertatik. Euskaltegian nabil eta han ere erabiltzen dugu.

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



URKIDI  
AHOLKULARITZA

Zorionak  
Barreneko  
lantaldeari

**ASEGUROAK**


Kalamua 12 ELGOIBAR Tel-Fax: 74 18 91

**DORI** urdaitegia

Euskaraz ez dakigunok ere eskertzen dugu **BARREN!**



Errosario 29. ☎ 74 11 92





# Zer da *gehien gustatzen zaiuzuna?*



**ASIER AJURIAGERRA**  
10 urte, ikaslea

Oso iritzi ona dakat Elgoibarko gauza guztiak jartzen dituelako. Gehixen komikixa gustatzen jata eta argazkixak begiratzia.



**AMELIA GONZALEZ**  
66 urte, etxekoandrea

Ez dut ulertzen gehiegi baina erretratuak begiratztea gustatzen zait. Lan handia egiten duzuela iruditzen zait astero hain herri txikian notiziak jasotzeko.



**LOLI AGIRREZABAL**  
37 urte, etxekoandrea

Asko gustatzen zait, nahiz eta nik gehiegi ez dudana ulertzen. Semearekin batera irakurtzen dut. Gusturen irakurtzen dudana kirolen atala da.



**IGNACIO GALDONA**  
46 urte, txoferra

Dana irakurtzen dot eta ondo dauala iruditzen jata baina gauza batzuk ez jataz gehiegi gustatzen; agertzen diazen iritzi politikuak adibidez.




**ISAAK LOIOLA**  
27 urte, pertsonal gestioa

Oso ondo dago, astero irakurtzen dut baina politika gutxiago egon beharko litzateke, hobe ezer ez. Sakonki tratatutako gaiak gustura irakurtzen ditut.



**JULIAN AIERDI**  
51 urte,  
errektifikatzailea

Astero ikusten dot BARREN, irakurtzeko afizio handirik ez euki arren. Beiratua ematen diot eta hango erretratuak ikusi ia ezagunen bat daon.



## SUKALDE

**Zorionak 100. zenbakiagatik, segi horrela!**

Ofizinak eta erakusketa: Pedro M. Urruzuno, 8, Tel-Fax 74 38 44



## BIZITZA GUZTIRAKO OPARIAK

*Zorionak euskaragatik egiten ari zareten guztiagatik!*

San Frantzisko 26. ☎ 74 25 35 • ELGOIBAR.



100.

Zenbaitza

## Nortzuk laguntzen digute **BARREN** egiten?

**A**sko dira astero astero **BARREN** egiten laguntzen digutenak eta lagundu izan digutenak. Batzuek informazioa ematen, beste batzuek gehigarriak egiteko gaiak erabakitzen laguntzen digute eta beste asko atal ezberdinetaz arduratzen dira, hala nola, Txokorik Txoko, Berbe-

tan edo Bata ala Bestea. Guztiak aurkeztu nahi genizkizueke baina, horretarako tokirik ez eta behean ikusten dituzuen aurpegi horiekin konformatu beharko. Besteen izen-abizenak atal eta gehigarrien arabera banatu ditugu. **Guzti hauek BARRENEko protagonistak dira.**

Hona hemen gaur egun **Berbetan, Bata ala Bestia, Txokorik Txoko eta Gogoratuz ataletako kolaboratzaileak**: Goitik hasita, ezkerretik eskumara: Belen Arrizabalaga, Maite Iriondo, Imanol Larrañaga, Aitor Zabaleta, Mikel Cornejo, Koldo Galdona, Joseba Gorosabel, Xabier Gorriti, Edurne Korta, Pello Arrieta, Ina Garagarza eta Yulen Zabaleta (plumilaz egindako ilustrazioen egilea).



### Gehigarriak

- **Kale zulotik**  
**BASERRIRA:** Agustin Irusta, Asier Albizu, Karmen Korta eta Idoia Esnaola.
- **Zaharrak Berri:**  
Amagoia Ruiz de Gauna, Begoña Mugerza eta Zaharren Biltokiko Zuzendaritza.
- **KiliBARREN:** Joseba Etxeberria, Alaitz Vives, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Zigor Txurruka, Aingeru Gallastegi, Mikel Garate, Haritz Goikoetxea, Maria Longarte, Ziortza Urbietta eta Garbiñe Zabala.
- **TxikiBARREN:** Ikastola, Pilar eta Herri Eskola.

### Ilustrazioak

Bea Ansola, Aitor Agirrezabala, Andoni Arregi, Mikel Cornejo, Aitor Lodoso, Andoni Rementería eta KOKOE.

### Bertsoak

German Meabebasterretxea, Imanol Larrañaga, Arriola anaiak, Irati Agirreazaldegí, Jon Barandiaran, Iñigo Aranbarri, Arnaitz Gorriti, Asier Etxaniz, Aitzol Arriola, Izaskun Elizburu, Jabier Arrizabalaga "Ziarda", AEKko taldea, Josu Guenetxea, Abel Irizar, Kepa Mendikute, Asier Lasuen, Lore Agirreazaldegí, Jon Garate, Alberto Gonzalez, Itziar Leiaristi, Jon Peli Uriguen, Boti, Iñaki Uribe, Daniel Legorburu, Javier Arriola eta Xabier Astigarraga.

### Elkarrizketatzaileak

**Berbetan eta Bata ala Bestia egiten kolaboratu izan dutenak:** Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Agur Miren Barandiaran, Jon Eugi, Jasone Osoro, Lorea Perez de Albeniz, Edu Sanz eta Nerea Lodoso.

### Iritzia

**LAU HANKATAN:** Alberto Ansuategi, Joxin Arregi, Hasier Etxeberria eta Diana P. de Albeniz.  
**ZENBAT BURU HAINBAT ABURU:** Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Gotzon Arrieta, Asier Etxaniz, Felix Etxeberria, Itziar Fernandez, Gotzon Garate, Alfonso Guilló, Enrike Larrañaga, Jesus Mari Makazaga, Iñaki Odriozola, Jose Inazio Sarasua, Olga Unzilla, Myriam Villasante, Andres Alberdi, Susana Mujika, Izaskun Elizburu, Mikel Artola, Maite Solozabal, Jon Eugi, Joseba Konde, Felix Arrizabalaga, Lorea Gorostiaga, Antonio Matias, Jon Etxabe, Esteban Antxustegi, Karmelo Urdangarin, Ana Igartua eta Felix Arrizabalaga.

### Gaztaroa

Irati Agirreazaldegí, Nere Arostegi, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Sugar Etxaniz, Izaro Etxegibel, Enez Ezenarro, Amaia Gorostiza, Ekaitz Isasi, Ixa Sanchez, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Ana Vila, Alaitz Vives eta Saioa Berasain.



100.

Zenbakia

# Nora iristen da BARREN?



**O**rain dela bi urte pasatxo kaleratu zen BARRENen zero zenbakia. 500 harpidedun zeuden garai hartan, Elgoibarko Izarrako bazkide zirenak BARREN astekariko harpidedun bihurtzen ziren automatiko-ki. Ordutik hona dexente haunditu da harpidedunen kopurua. Astero astero iristen dira BARREN etxean

jaso nahi dutenen harpidetzak, bakoitzak erabakitzen du jaso nahi duen ala ez. BARREN, jaso nahi duten etxeetara iristen da. Gaur egun Elgoibarrera, Mendarora, Euskal Herriko hainbat tokitara, Estatu espainiarrrera bai eta Europa zein Amarietara ere iristen da astero astero. 3.400 harpidedun ditu guztira. Ez da gutxi!

• • • • •  
**500 harpidedun**  
**izatek 3.400 izatera**  
**iritsi gara**  
 • • • • •

## NOLA BANATZEN DA BARREN MUNDUAN

|                        |             |
|------------------------|-------------|
| ■ Elgoibarren.....     | 2.580       |
| ■ Altzolan .....       | 30          |
| ■ Mendaron .....       | 400         |
| ■ Euskal Herrian ..... | 325         |
| - Araban .....         | 25          |
| - Bizkaian .....       | 50          |
| - Gipuzkoan .....      | 240         |
| - Nafarroan .....      | 10          |
| ■ Espainian .....      | 46          |
| ■ Europan .....        | 15          |
| ■ Ameriketara.....     | 14          |
| <b>GUZTIRA .....</b>   | <b>3410</b> |

### ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?

*Hitzegiteko: landu zure ahotsa!*

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...  
 ERAGINDAKO RONKERAK

**ANGELA ZABALETA AIZPITARTE**

DEITU ☎ 74 15 56 - 10 03 51



**KIROLAK** *Zorionak*  
**100.**  
*zenbakiagatik*

*Zorionak*  
*euskararen*  
*aldeko*  
*lanagatik!*

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

• • • • •  
*Erregalu artikulua*  
*Instalazio orokorrak*  
*Sukaldeko tresneria.*  
**ERROSARIO 6 behea. Tel: 74 16 44.**





100.

Zerbitzua

# Nola finantziatzen da **BARREN?**

**A**stero astero aldizkari bat ateratzeak eta gainera aldizkari hori nahi duten guztiek etxean doan jasotzeak kostu bat suposatzen du. Kontuan izan behar da, gainera, langile batzuk dauzela horren bueltan eta horiek ere diru sari bat jasotzen dutela. Nola finantziatzen da, beraz, **BARREN?** Taulan ikus daitekeen bezala, gastuen atalari dagokionean, pertsonal gastuez gain, inprenta, banaketa eta bulego gastuak daude, besteak beste. Sarrerak, berriz, bi erataria lortzen ditugu. Alde batetik guk geuk ateratakoa dago, publizitatearen bidez eskuratzen dena. 1994ean 10.700.000 pta fakturatu ziren eta 1995ari begira 11.300.000 pta eskuratzeko asmoa dago. Horrezaz gain, erakunde publikoen dirulagutzak dauzkagu, hala nola, Udaletxeak (% 31,5), Aldundiak (% 8,5), Jaurlaritzak (%9) bai eta Mendaroko Udalak ere ematen dituztenak, azken honek hilerok kiliBARREN ateratzeagatik.


| DIRU IRTEERAK(gastuak)   | 1994                     | 1995                     |
|--------------------------|--------------------------|--------------------------|
| Pertsonal gastuak        | 10.212.476 (%43,5)       | 11.167.000 (%46,5)       |
| Inprenta                 | 9.828.000 (%42,0)        | 9.500.000 (%39,5)        |
| Banaketa                 | 1.257.000 (% 5,0)        | 1.257.000 (% 5,5)        |
| Bulego gastuak           | 416.377 (% 2,5)          | 416.000 (% 2,0)          |
| Beste batzuk             | 1.673.648 (% 7,0)        | 1.560.000 (% 6,5)        |
| <b>GUZTIRA</b>           | <b>23.387.501 (%100)</b> | <b>23.900.000 (%100)</b> |
| DIRU SARRERAK            | 1994                     | 1995                     |
| Diru sarrera propioak    | 11.000.000 (%47,0)       | 11.600.000 (%48,5)       |
| Publizitatea             | 10.700.000 (%46,0)       | 11.300.000 (%47,5)       |
| KUTXAren aportazioak     | 300.000 (% 1,0)          | 300.000 (% 1,0)          |
| Erakunde publikoak       | 12.305.200 (%53,0)       | 12.300.000 (% 51,5)      |
| Elgoibarko Udala         | 7.500.000 (%32,0)        | 7.500.000 (%31,5)        |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 2.000.000 (% 9,0)        | 2.000.000 (% 8,5)        |
| Eusko Jaurlaritza        | 2.205.200 (% 9,5)        | 2.200.000 (% 9,0)        |
| Mendaroko Udala          | 600.000 (% 2,5)          | 600.000 (% 2,5)          |
| <b>GUZTIRA</b>           | <b>23.305.200 (%100)</b> | <b>23.900.000 (%100)</b> |
| <b>IRABAZIAK-GALERAK</b> | <b>-82.301</b>           | <b>+000.000</b>          |



*Eskuratu Zorionak* saiatzen gara

**Zorionak BARREN eta BARREneko langileoi!**

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45



**TINDATEGIA**  
*Zorionak BARREN!*

Foruen Enparantza 4  
Tel. 74 00 91

**ileapaindegi mixtoa**

**Maria Urizar**

**ZORIONAK LEHEN 100 ALEENÇATIK!**

Errosario 9-1 ezk. ☎ 74 44 89 ELGOIBAR





# PUBLIZITATEA



## BERISTAIN

### EDARI BANATZAILEA

Iñaki ☎ 74 38 27

KEY

RAM



# Zorionak BARREN!!



# KENSINGTON

Pedro Muguruza 8. ELGOIBAR TEL- FAX 74 02 36



GIPUZKOAKO  
HIZKUNTZ IRAKASLE  
ELKARTEKO BAZKIDE

• INGELESA • FRANTSESA • ALEMANA •

Cambridge Unibertsitateko azterketa komiteko partaideak (ES-438)

Deba Beheko Hizkuntz Zentro federatu bakarra (F.E.C.E.I.)

Enpresetan ere klaseak ematen dira

Inglaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Au-pair

## METODOLOGIA AKTIBO ETA DINAMIKOA



**ALDERDI POLITIKOAK:** EGI, Eusko Alderdi Jertzalea, Eusko Alkartasuna, Euskal Ezkerra, Jarrai, Herri Batasuna, Partido Sozialista Euskadi-Euskadiko Ezkerra. **ALTZARI ETA DEKORAZIO DENDAK:** AB Interiores, Ane Dekorazioa, Anton, Antxustegi Zeramikak, Endañeta, Etxetxo, Gorroño, GTE, Iriondo, Muebles el almacen de Elgoibar, Olatz sukaldeak. **ARGAZKI DENDAK:** Azkue, Ostarku. **ASESORIAK ETA ASEGURU ETXEAK:** Aizpitarte, Aranbarri, Bilbao aseguruak, Generali aseguruak, Goar, Hispania aseguruak, Kairos aseguruak, Mapfre aseguruak, Mutua general de seguros, Norfo. **AUTO ETA BIZIKLETA ZERBITZUAK:** Astigarraga garagea, Barola Karrozeriak, Egaña, Estrada Karrozeriak, Ire bizikletak, Lagun Mobil, Rezola Gasolindegia, S. Klara autokonponketak. **AUTO ETA MOTO ETXEAK:** Autos Eibar Audi-volkswagen, Cocar S.L, Eibar Moto, Eibar Motor Seat, Ford Lerun, Mendaro Autoak Hyundai, Opel Analsa, S. Klara automozioa Citroen. **BANKETXEAK:** Banco Bilbao Vizcaya, Banco Vasconia, Bankoa, Euskadiko kutxa. **BESTE BATZUK:** Arin, Angela Zabaleta, Arkauz ferreteria, Arkupe tindategia, Etxabe ferreteria, Aranbarri gruak, Kontxi hariak, Teodd brikolageak, Txus Garbiketak, Garate Estankoa, Iru-Nabe eskabazioak, Graas Pana. **BITXI DENDAK:** Aranburu, Osoro. **BOTIKA ETA BELAR DENDAK:** Etxeberria Botikategia, Gorostiza Dietetika, Kemen Belardenda, Nozki Belardena. **PAPER DENDAK:** Classy, Glaza, Gorostiza, Goxden, Jauregi, Katebi, Kopilan, Mekanosa, Valencia. **EDARI BANATZAILEAK:** Aitz Bizkar, Altzolako urak, Beristain, Ibar Txiki, Jose Mari Aranzamendi "KATEI", Urak C.B. **ELEKTRIZITATE DENDAK:** Artegi-Millar, Azpeleta, Beti Argi, Bire, Urzelai. **ELKARTEAK:** Andraize Emakume Taldea, Anti Mili Taldea, Casa Cultural de Galicia, Club Deportibo Elgoibar, Gazte Asanblada, Kalamua elkarte, Kimetz elkarte, Morkaiko mendizale elkarte, Senideak, S.O.S. Balkanes, Txankakua merkatari elkarte. **ENPRESAK:** Aibe Tailerrak, Aibe Konstruzioak, Artebas S.L, Bama Konstruzioak, Caldereria Egondo, Cirstaleria Elgoibarresa, Comercial Garmar, Cometel S.A., Elgoibar eta Mendaroko industrialdeak, Esayde, Estarta Ingenieria & Maquinaria S.A., Etxepe, Exmahe, Gailur, Goki Eraformak, Hidraulik Ring S.L, Industrias Olaldea, Inlozu, Iraegi Errotulazioak, Kalamua S.A., Lanbi, Laxakor, Lopez Ojeda Hermanos S.A., Mandiola Egurrak, Manzidor Anaiak C.B., Maser S.A., Novac Mecanizados, Oierki igogailuak, Pneumax, Sifile, Sumofic, Taes Elektrizitatea, Talleres Tximi, Teknikalde, Zubakor S.L., Zubiplast, Zulaika Anaiak. **ERROPA DENDAK:** Agirre sastreria, Arrieta modak, Astigarraga kirolak, Diamir, Ecenarro, El Telar, Elorza ahizpak, Ferpy, Garate, Ion jantzi denda, Iriondo kirolak, Karkizano, Lete, Lizzy, Massumis, Modas M. Angeles Azpiazu, Muxi kirolak, Petunia, Skandalo, Tik-Tak, Xirula, Zobel. **GARRAIOAK:** Andres Osoro garraioak, Eibarbus, Eroski Bidaiak, Eusko Trenbideak, MRW, Pesa, Rey Quiroga-Hertz, Seat, Unzueta garraioak, Xauen bidaiak. **GAS ZERBITZUAK:** Natur Gas, Eroso. **GOXO-DENDAK:** Denetik, Imanole, Lopez Izoziak, Maite gozotegia, M. Jose gozotegia, Muruamendaraz, Salegi, Saint Geron's txokolateak. **IKASTETXEAK:** A.E.K. euskaltegia, Batxilergo Institutua, Damkar't akademia, Elgoibarko Udal Musika Fundazioa, Gestio Eskola, Haurtzaindegia, Herri Eskola, I.M.H., I.M.H. Hizkuntzak, Inazio Bereziartua musikeskola, Irakasle Eskola, M3 Informatika, Kensington, Lanbide Heziketarako Institutuak, Larrañaga autoeskola, Migel Altuna Institutua, Pilar ikastetxea, San Bartolome Ikastola, Solozabal autoeskola, Sonia Dantza Eskola, Udal Euskaltegia, Uned, Zezenbide autoeskola. **ILEAPAINDEGIAK ETA EDERGINTZAK:** Arantzazu edergintza, Belen Albizu, Biak ileapaindegia, Dardara, Elena, Fadek, Garbiñe, Idama, Ido's, Itzala, Jose Antonio, Kide, Lali, Magu's, Maria Urizar, Nahia, Richi, Txaro, Xabier. **INPRIMATEGIAK:** Arrillaga, Cuesta, Debape, Nava. **INSTITUZIOAK:** Deba Beheko Mankomunitatea, Elgoibarko Udaletxea, Foru Aldundia, Mendaroko Udaletxea. **INMOBILIARIAK:** Deba Garia, Gabilondo Inmobiliaria, Txintxo Gestio Inmobiliaria. **ITURGINTZAK:** Andoni Tellabide, Javi, Ongi, Pagoaga, Salvador Celaya, Zaldua. **JANARI DENDAK:** Agirre harategia, Anparo txarkuteria, Armueta harategia, Bece izoztuak, Denetik, Dori urdaitegia, Eroski, Fidalgo supermerkatua, Garay harategia, Gurrutxaga harategia, Idarraga Kafeak, Jose Angel Zabala urdaitegia, Juana Urresti "Txata", Landa harategia, Laurita supermerkatua, Mari harategia-urdaitegia, Mariano Albizu Harategia, Miren arraindegia, Otzaki izoztuak, Patxi harategia, Pedro Osoro urdaitegia, Pilar arraindegia, Urbiola supermerkatua, Zeleta barazkiak, Zerbitzu Intxaurre, Zubiaurre. **JATETXEAK:** Aterpe, Batzokia, Gabi, Gorbea, Gurbil, Herri Gain erretegia, Ibai Ondo erretegia, Kantabria, Landa erretegia, Pako, San Pedro, Txarriduna, Txinatar jatetxea, Untzon, Zubia. **KIROL ZERBITZUAK:** Ibai Gimnasioa, Olaizaga Kiroldegia, Udal Kirol Zerbitzua: Mintxeta. **KULTUR IHARDUERAK:** Arteszena, Egunkaria, Liburu Azoka. **LEIHO ETA AROSTEGIAK:** Aluvitel, Glas Control, Jose Ignazio Ulacia arostezia, Juaristi arostezia, Lodoso Leihoak, Sikitei Cerramientos, Yosothermik. **LURRINDEGIAK:** Apraiz, Arauri, Goiara, Yudego. **MARGOAK:** Cordon Vilarchao, Ipintza, Norberto Zabala margoak, Pinturas Elgoibar, Pinturas Pedro Perez Beristain. **NEKAZAL TURISMOA:** Aitzola zahar, Atxuri baserria. **OKINDEGIAK:** Bolintxo, Boutic del pan, Fotero, Kartutxo. **OPARIAK:** Pitxintxu, Mimox. **OPTIKAK:** Ikus, Uzuri. **OSASUNA:** Ahots lan, Albaitaritzza klinika, Centro de Rehabilitación Funcional, Consultorio Ginekologiko, Eibarko osasundegia, Logopedia zentrua, Ortopedia Arrieta. **PENTSU ETA LABOREAK:** Azkue, Ineko, Txarriduna, Lete nekazal tresneria. **PIROTEKNIKA:** Astondoa, Zamorano Caballer. **SAGARDOTEGIAK:** Añota, Aulia, Etxezuri, Korta, Ñañarri, Otatza, Txertakadi, Tximista. **SENDAGILEAK:** Agustin Sanchez, Crespo, Eizagirre, Esnaola, Etxaniz, Gerardo Natenzon, J. Etxeberria, J.J. Bastida, Jose Luis Diez Tejero, Kemen medikuak, Loiola, Nozki medikuak. **SINDIKATUAK:** C.C.O.O., ELA E.S., LAB, UGT. **TABERNAK ETA DISKOTEKAK:** Aitz Bizkar, Aldapa, Ametsa, Amistad, Arrats Pub, Asgi, Bide-Gain, Bodega Hemendik, Errezabal, Estazio Taberna, Ferpy degustazioa, Hemendik Bodega, Guass, Iñaki Bodegilla, Iriondo, Kaia, Katiuska, Kartutxo, Lanbroa, Leku Ona, Los Herminios, Malape, Oiz Mendi, Otzak, Oraiko behe, Oraiko Goikoa, Orbea, Ormola, Pepe taberna, Pub Lojantzi, Pub Pelouse, Roke, San Pedro, Tiroriro, Toki Alai, Tropiko, Truk, Txiriboga, Txirristaka, Txuribeltz, Udaberri, Urkiola, Usatorre, Usoa, Zazpi. **ZAPATA DENDAK:** Argin, Beki, Merino, Ortueta, Osoro, Roberto Merino, Vilarchao.





# 13.600 pertsona 400 etxeren publizitateari begira

**O**rain bi urte arte publizitatea telebista, irrati edota nazio mailako egunkari eta aldizkarietara mugatzen zen. Herri komunikabideak sortzearekin bat, eta horien artean BARREN, ohiturak aldatu eta herri-tarrak iragarkien garrantziaz ohartu ziren. Zero zerbakitik 100.era 400 etxe ezberdinek egin izan dute publizitatea BARRENen. 3.400 harpidedun daude eta egin berri den ikerketaren arabera etxe bakoitzean lau pertsonak irakurtzen dutenez, 13.600 irakurle ditu BARRENek guztira.

Herri aldizkarien bizi-iturri bilakatu da publizitatea eta dendari, merkatarik zein tabernariak BARRENen euren izena azaltzea eraginkorra dela dakite. Herritarrengana iritsi nahi duenak publizitatea egin dezake BARRENen eta beste inon baino merkeago gainera. Modulo ezberdinak daude, 2.000 ptatik hasi eta 30.000 ptara bitartekoak. Koloretan egin nahi duenak 35.000 ptagatik egin dezake orrialde oso batean eta haurz gain, publerreportaiak egiteko

aukera ere badago. BARRENen publizitatea egiteak dituen abantailen artean bada bat azpimarratu behar-koa: orri solteak buzoneatzeak arrisku bat du, zakarrontzira zuzenak joatearena, hain zuzen. BARRENen, ordea, gainontzeko albiste, elkarrizketa eta erreportaiekin batera doanez, jendeak guztiak batera eskuratzen ditu eta irakurri ere, biak irakurtzen ditu, albistea bai eta iragarkiak ere. Dendariak bezeroarengana zuzenean heltzen dira eta euren produktuaren berri ematen die. Ez dago, beraz, segituan zakarrontzira joateko arriskurik. BARRENek publizitatearen beharra duen bezala, herriko merkatarik ere publizitatea egiteak duen garrantziaz jabetu dira. Bientzat onura, beraz.

| PUBLIZITATE FAKTURAZIOA URTEZ URTE |                 |
|------------------------------------|-----------------|
| ■ 1993 .....                       | 8.919.700 pta.  |
| ■ 1994 .....                       | 10.700.000 pta. |
| ■ 1995erako asmoa ....             | 11.300.000 pta  |



## Kk g

### ILEAPAINDEGIA

*Zorionak eta jarraitu orain arte bezala!* ☎ 74 00 69  
San Frantzisko, 40 - 3 - B

## oizmen i

Tel: 74 00 16

### TABERNA

### MANCISIDOR HERMANOS, C.B.

Mekanizatuak  
Mandrinatuak

Planu bidezko piezen fabrikazioa eta mekanizazioa orokorrean.

☎ 74 30 55  
FAX: 74 37 77  
ELGOIBAR





100.

Zerbita

## BERAIEK ESANA

# 30 lagunen berbak


### JOSE INAZIO ELKORORIBE

“Euskara hutsean sortzen den edozein astekari txalogarria da guretzat”  
(1992-12-23, 0 zenb.)



### JOSE MARI ONDARZA

“Bihotza eta ari-maren arteko mugimendua gustatzen jata: maitasuna”  
(1993-1-22, 2.zenb.)



### HASIER ETXEBERRIA

“Fama ez da ezer. Zerbitu izatekotan banidadea zerrautsez betetzen duen zerbitu da, baina batez ere, traba bat”  
(1993-4-30, 15. zenb.)



### JOSE ANTONIO AGOTE

“BARRENen zerbait atal gaztelaraz idaztea eskatuko nuke, euskara ez dakigunok ere irakur dezagun”  
(1993-6-4, 20. zenb.)



### MAIDER ELUSTONDO

“Herriko gazteok gure ekimenak aurrera eramateko toki bat behar dugu, guretzat eta guk eginiko Gaztetxea, autogantzatua eta irekia”  
(1993-9-10, 30. zenb.)



### JOSE ANTONIO URBIETA

“Australian urtero ospatzen dugu Aberri eguna eta ia beti bukatzen dut negarrez”  
(1993-11-26, 41. zenb.)



### JOXIN AGIRRE

“Arazo politiko gogor bat dugu konpontzeko. Dena den, are gogorragoa izango da elkarren arteko errespetuan eta elkarriketan oinarritutako kultura sortzea”  
(1993-12-10, 43. zenb.)



### MARI KARMEN AZPIAZU

“Trasplantea eta geroko bizimodua ia normala da. Zazpi urtez dialisia egiten egon eta gero, hau zerua da”  
(1993-11-5, 38. zenb.)



### MARIA DE LOS BUEYS

“Nik euskararik ez eta senarrak gaztelaririk apenas. Halere, ondo elkar ulertzen genuen, ez zegoen hitz beharrik”  
(1994-1-21, 48. zenb.)



### PATXI ARRIOLA

“Ehiza joko antzeko bat da. Partehartzaileak animalia eta pertsonak dira. Pertsonak abantaila dauka bere bizitza ez baitu arriskuan jartzen, halere, gehienetan animaliak irabazten du”  
(1994-3-1.21, 48. zenb.)



### ITZIAR FERNANDEZ

“Emakumeak beste beharrak garantizatzeko izan gara hezitua. Ez dugu aukerarik eduki erabakiak libre hartzeko eta gure bizitza pertsonala aurrera eramateko”  
(1994-3-4, 54 zenb.)



### EDU OSORO

“Gizonak ere diskriminatua gaude. Emakume batzuek inutalak garelako uste dabe”  
(1994-3-25, 57 zenb.)



### PILAR LARRANAGA

“Oingo neskak badakixe ez diala sukaldian geratuko eta mutilek badakixe ez dabela eurentzat lan egingo daban neskame bat topaiko”  
(1994-3-25, 57. zenb.)



### ARANTXA ARMENDIA

“Aste Santua opor laburrak zirela uste nuen baina behin Jaunak bere ‘argia’ bidali zidan eta Bera zein den deskubritu nuen”  
(1994-4-8, 58. zenb.)



### GOTZON GARATE

“Elebitasunaren mitoa ergelak engainatzeko kontua da”  
(1994-4-29, 61. zenb.)





# orain arte erandakoaren entresaka

## MONTSE ARREGI

“Pena piskat ematen didate hirietako umeek. Ez dute txorizo ogitartekoa hartu, kalera atera, atxutxiamaikan jolastu edo beste mila gauza egiteko aukerarik” (1994-4-22, 60. zenb.)



## JABIER ARRIZABALAGA

“Baserritxarra izateko bokazioa behar da” (1994-5-6, 62. zenb.)



## GEMMA AGIRREGOMEZKORTA

“Prebentzioa, drogekin bizitzen jakitea bezala ulertu behar da, hauen menpe egoteke, baina badi-rela ukatu gabe” (1994-5-20, 64. zenb.)



## ANA AIZPIRI

“Txertorik gabeko gaisotasuna da zurrumurrua: frogatzerik ez dagoena, ukatzerik merezi ez duena, gezurak egia eta egiak gezur bihurtzen dituen sasi-hiritarren jarduna; sortu, hedatu, bertan-beheratu eta arrasto ustela utzi besterik egiten ez duena” (1994-5-27, 65. zenb.)



## JABIER JUARISTI

“Futbolak alergía ematen dit” (1994-5-27, 65. zenb.)



## ELISABETH BENITO

“Roldan txirrintulari bat dela uste dut, karreraren lehena edo bigarrena heldu zena. Oso txirrintulari ona da eta aurre-ra jarrai dezala” (1994-6-10, 67. zenb.)



## PATXI ZABALETA

“Guk alkohola ez dogu arazo bat bezela ikusten. Joku bat bezela ikusten dugu” (1994-6-17, 68. zenb.)




## TRINIDAD BARRUTIA

“Bilobari esaten diot interesatzen ez bajako ez lagatzeko sekula mutil bati deklaratzeko, lagun bat galtzeko arriskua daualako” (1994-9-23, 77. zenb.)



## MYRIAM VILLASANTE

“Alkoholzaleak basokada bat ardo, drogazaleak dosia eta jokuzaleak bere zenbakia behar duen eran, gurasook alabasemearen hurbiltasuna behar dugu” (1994-10-21, 81. zenb.)



## PELLO EZKURRA

“Komunikazioa da bihotzerako masajerik onena” (1994-10-21, 81. zenb.)



## JUAN SANTOS ORTIZ DE VILLALBA “ANANA”

“Guk zementuzko hautsez eginiko bihotza daukagu, zenbat eta malko gehiago erori gugan, orduan eta gogorragoa egiten zaigu bihotza” (1994-10-28, 82. zenb.)



## JOKIN MARTINEZ

“Extraterrestreak ikusi ditut baina hemen batez ere, egunkaria saltzen igande goizaldera” (1995-1-20, 92. zenb.)



## ALBERTO ANSUATEGI

“Amets bat osten digutenean haren edertasuna areagotu egiten da eta inposatuz gero, aldiz, amets gaizto bilakatzen da” (1993-1-15, 1. zenb.)



## ENEKO LOIOLA

“Hazkurea gus-tatzen ez zaidan bitxo zikin bat da. Eskerrak Julen Gerrerok ez dituen” (1995-2-10, 92. zenb.)



## PACO EGEA

“Ekonomia egoera osasuntsuan dagoenean ere mimatu behar da” (1995-2-17, 96. zenb.)



## MOTZIAN

### ■ Kontsumitzaileen Eguna izan zen asteazkenean

Martxoaren 15ean Kontsumitzaileen Eskubideen aldeko eguna ospatu zen mundu mailan. Hori dela eta Elgoibarko Udaletxeko Kontsumitzaileen Bulegoak mahai bat jarri zuen Plaza Haundian. Bertan, urteetan zehar kaleratu dituzten argitarapenak ikusi eta har zitezkeen, jendeak kontsumitzaileei dagokien gai eta eskubideen berri izan dezan eta gero OMIC bulegora joan dadin informazio gehiago nahi izanez gero.

### ■ Zazpikiren bilera

Bihar, larunbata, Zazpiki irriatik hileroko bilera egingo du apirileko programazioa zehaztu eta bestelako gaiez hitzegiteko. Goizeko 11,30etan izango da Kultur Etxeko ganbaran. Martxoan asteazkenetik igandera bitartean izango dira irratsaioak. Eguastenean arratsaldeko 7etatik gaueko 12ak arte luzatuko da programazioa. Eguenean, 9etatik 11etara. Barikuan arratsaldeko 6etan hasi eta gaueko 2ak arte entzun daitezke saioak Zazpikin eta zapatuan goizeko 11etan ematen zaio hasera, arratsaldeko 4ak arte. Domekan, goizeko 11etan hasita, etena dago eguerdiko leian eta arratsaldeko 6etan ekiten zaio berriz ere, iluntzeko 9ak arte. Musika, informazioa, kontrainformazioa eta "sexnoiak" dira saio ezberdinen gaiak.

### ■ Musika Bandaren kontzertua igandean

Elgoibarko Musika Bandak kontzertua eskainiko du datorren igandean, hilak 19, San Jose egunez. Herriko Antzokian izango da, eguerdiko 12,30etatik aurrera. Hona hemen entzungai izango diren piezak: "Ateneo musical", M. Puigena, "Il Signor Bruschino", G. Rossinirena, "Misty", E. Garnerena, "Agua, Azucarillos y aguardiente" F. Chuecarena eta "Suite en La", J. Gomezena.

## Ales Arrietak Elgoibarko Izarrako lehendakari izateari utzi dio



**A**les Arrieta, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteko lehendakariak dimititu egin du. Azken lau urteotan Elkarteko lehendakaria izan ondoren, arrazoi pertsonalak direla eta laga egin du orain arte-

ko kargua. Dimisioa gaur, martxoak 17, gauzatu da eta Elkarteko behinbehineko lehendakaritza egun, lehendakari ordea den Iñasio Garmendia jaunak hartuko du.



**Emakumeen Txintxon Txapelketa**ren irabazleak Maria Garagarza, Maria Elizburu, Emili Herrero eta Ana M. Goikoetxea izan ziren. Lau emakume hauek afari bat irabazi dute Aterpe tabernan. Joan den ostegunean izan zen txapelketa *Gure Dendan* eta guztira hamasei pertsonak hartu zuten parte. Martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekintzen barruan sartzen zen honako hau ere, igandeko bazkariko giro apartarekin amaitu zelarik.



## Ibai gimnasiokoek nazioarteko zortzi domina lortu dituzte



**I**bai gimnasioko 10 elgoibartarrek Manu Agirrek zuzentzen duen Eibarko Club Kalamua taldean parte hartu zuten. Beste 35 judokekin batera Andorran ospatu zen Nazioarteko Judo Torneoan izan ziren. Frantziako hiru selekzio, Valentziako bat eta Andorrrako lau selekzioek hartu zuten parte eta Kalamuak eskuratu zuen taldekako saria. Elgoibartarrek 8 domina eskuratu zituzten. Benja-

minen kategorian, Ganix Ostolazak eta Xabier Gonzalezek urrezko domina, Egoitz Morak zilarrrezkoa eta Zuhaitz Azpiazuk brontzezkoa. Kadeteen kategorian, Zipri Migalesek urrezko domina eta Gorka Garatek, Aitor Garatek eta Roberto Marcok brontzezkoa. Xabi Gonzalezek urrezko domina lortzeaz gain gerriko marroia ere eskuratu zuen Andorran.



**Zuhaitz Eguna** ospatu zen joan den larunbatean, martxoak 11. Elgoibarko OHOk haurrak Mintxetan izan ziren eta bertan platano japoniarra izeneko zuhaitza landatu zuten, hogeituztira. Eguraldia behintzat punta puntakoa izan zen eta urreratu ziren gazteek zuhaitz bat nola landatzen den ikasi zuten brigadako langileen laguntzarekin.

## ■ Kok-Art komiki fanzinearen 1. zenbakia

KOKOEk "Kok-Art" izeneko komiki fanzinearen lehenengo zenbakia kaleratu du. KOKOEk bere istorioa azaltzen du pare bat orrialdetan eta horrezaz gain komiki taldeko partaideen lanak irakur daitezke bertan, istorio luzeak zein tira ezberdinak edota marrazkiak. 100 ptaren truke nahi duten guztiek eskura dezakete herriko zenbait tabernatan.

## ■ Arrantza federazioko lizentziak eskuragai

*La Union* elkarteak jakinarazi duenez, aurtengo arrantza federazioko lizentziak jaso daitezke dagoeneko. Horretarako, *La Union* elkarteak Urasandin daukan lokalera joan behar da astearte edo ostegunetan, arratsaldeko 19,30ak eta 20,30ak bitartean. Era berean, aurtengo kirolbaskidearen txartela ordaintzeko epea ireki dela azaldu dute.

## ■ Erreminta makinak gora egin zuen 94an

Erreminta makinaren sektoreak gorakada garrantzitsua izan zuen iazko urtean zehar, eskaria, kanpo eskaria batez ere, %40 handitu baitzen. Azken hilabeteotan eskariak hobetu egin du, itxuraz kanpoko merkatuak bultzatuta. 1994. urtean zehar erreminta makinaren sektoreak produzitutakoren %60 gutxi gora behera Euskaditik kanpora saldu zen. Patxi Aldabaldetrek Erreminta Makinaren Elkarteko presidentek komunikabideetan esandakoaren arabera, kanpoko merkatuaren bultzada hau aprobetxatu egin behar da, barneko merkatuan mugimendurik ez somatu arren. Barneko merkatuaren mugikortasun eza honez gain, zenbait lehengai garestitu egin dira eta beste batzuek, altzairu berezia adibidez, gutxitu. Honi Kanpoko eskariaren gorakada dela eta, Bilboko bienala dataz aldatzea erabaki dute. Datorren urtean, urrian ordez, apirilean izango





## KIROLA

### MOTZAK

#### Postu bikainak Olaizagako igerilariarentzat

Olaizaga kiroldegiko igerilariak postu bikainak eskuratu zituzten joan den larunbatean Eibarko kiroldegian izan zen txapelketan. Izan ere, Judith Ajubita gaztea irabazlea izan zen bi frogatan: 100 m, tximeletan eta 400 m, estilo librean.

#### Atletismoko emaitzak

Bizkaian ospatu zen Euskadiko Kros Txapelketan laugarrena izan zen Gorka Sanchez. Zumaiako krosean, berriz, Mireia Huidobro hirugarren geratu zen eta Ana Etxaniz laugarren postuan iritsi zen.

#### Deba Arroko Pilota Txapelketa

Deba Arroko Txapelketan honako emaitza hauek izan ziren azken jardunaldian: Infantiletan Karmel eta Garatek 18 eta 12 irabazi zieten Redondo eta Martin-i, jubeniletan Osa eta Gutierrez kanpotarrek 22 tantu lortu zituzten eta Balzola eta Lazarobaster elgoibartarrek 19. Seniorretan Muruamendiarazek eta Oruesagastki 7 tantuko aldeaz

## Txirringularien Lagun Taldeak



**O**rain pare bat aste Lagun Taldeak 1995 urteko ekipoak aurkeztu zituen. Kategoriatan banatuak, jubeniletan 19 gazte daude, 2. mailako kadeteetan 6, lehenengo mailako kadeteetan 10 eta infantiletan 18. Alebinen kategoriari dagokionean ez dago kopuru zehatzik, nahi duten guztiek parte har dezakete. Iaz 130 karrera korritu zituzten guztira eta postu nahiko onak eskuratu

zituzten. Aurten 2.500.000 pezetako aurrekontua dute eta diru horrekin, besteak beste, urtean zehar ohizko hiru lasterketak antolatuko dituzte Elgoibarren. Lagun Taldean sei monitorea daude lizentziarekin eta horrez gain zenbait gurasoren laguntza ere badute. 1995. urteari begira emaitza onak eskuratu nahi dituzte eta horretarako ekipo oso ona dutela adierazi dute.

**TABERNA**

Ei wpgt qmq  
o gpwc  
700 rvc

Zorionak!

San Roke auzoa 5. ☎ 74 25 95

• Eramateko  
OILASKO ERREAK

• Hobe aurrez  
eskatuz gero

SEGUNDO

Miguel Angel Canales

San Franzisko, 42 Tel. 742864

UDA

ELGOIB





**Karmen Perek** jaso zuen **1994. urteko kirolari onenari** dagokion garaikurra. **Alberto Agirreazaldegi BARRE**Neko zuzendariak, **Ramon Mujika** kirol teknikariak eta **Jose Gurrutxaga** korrikalari beteranoak osatu zuten kirolBARRENEko epamahaia eta **1994ko kirolari onenaren saria Ego-Tokiko** korrikalari gazteak merezi izan zuela erabaki zuten.

**G**illermo Garate Kultur Batzordeko presidentearen eskutik jasotako garaikurrarekin ikus daiteke Karmen Perea alboko argazkian, ezkerretara BARRENEko zuzendaria Alberto Agirreazaldegi, eta Guillermo Garate zinegotziaren alboan, Jose Luis Etxaniz Bankoako zuzendaria.

1994ko kirolBARRENEko edizioan parte hartu zuten 14 kirolariek Bankoak emandako Real Sociedad taldearen kirol-poltsa eta BARRENen kamiseta bana jaso zuten.

Jende mordoska bildu zuen ekitaldiari ETBK egindako ordu erdiko kirol bideo batekin eman zitzaion hasera. Ondoren sari banaketa ekitaldia izan zen eta azkenik, Artegi



■ ■ **Eskerretik hasita, atzean Jabier Osoro, Alberto Agirreazaldegi, Jose Luis Etxaniz; aurrean, Mikel Armendia, Patxi Arriola, Iñaki Andonegi, Joseba Etxeberria, Josu Unzueta, Guillermo Garate, Gorka Garate, Karmen Perea, Leticia Astray eta Amaia Revert.**

elektragailu dendak emandako Sony bideoaren zozketa egin zen kirolBARREN 94' edizioako lehiaketan parte eta erantzunak asmatu dituzten irakurleen artean. Txartel saritua Arantxa Elizburuk bidalitakoa izan zen eta hortaz, berarentzat zorionak. Baita zorionak Karmen Perearentzat eta gainontzeko kirolari guztientzat ere.



## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan Larunbata 18

**12,00:** Elgoibar - Aurrera Ondarroa (Jubenilak)  
**15,15:** Elgoibar - Real Sociedad (Infantilak)  
**17,00:** Haundi - Tolosa

### Igandea 19

**10,00:** Urki A - Antzuola (Jubenilak)  
**12,00:** Eibartarrak - Anaitasuna (Neskak)  
**16,00:** Elgoibar - Mutriku (2. errejionala)

### ESKUBALOA Kiroldegian Larunbata 18

**16,00:** Elgoibar - Usurbil (Jubenil mutilak)  
**17,30:** Pagoaga Elgoibar - Pulpo (Kadete neskek)

### FUTBITOA Urasandin Igandea 19

**10,00:** U. de Chile - Sporting Fotero - Pedruscos  
**11,00:** Hunde Verboten - Karkis R. del Mundo - Lucky L.  
**12,00:** Rebel Urbi - Gruas Pana Berrogei Duro - Tropiko

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Elgoibar 4 - Santo Tomas 3 (Infantilak)  
 Elgoibar 4 - Martutene 0 (Kadeteak)  
 Hernani 2 - Haundi 1  
 Elgoibar 2 - Alde Zaharra 0 (Neskak)  
 Mundai 0 - Elgoibar 2 (Jubenilak)  
 S. D. Eibar 2 - Elgoibar 0 (2. errejionala)

### ESKUBALOA

Pagoaga Elgoibar 18 - Hernani 8 (Kadete neskek)  
 Elgoibar 18 - Mundaiz 14 (Kadete mutilak)  
 Bidebieta 28 - Elgoibar 28 (Jubenil mutilak)  
 Zestoa 26 - Txankakua Elgoibar 24 (Senior mutilak)

### FUTBITOA

Replastisa 3 - Haritza 1 Rua 3 - D. Kalimotxo 2  
 G. Garcia 3 - Aldavas 2 S. Roketarrak 0 - K. Kong 0  
 Oraiko Cafe 2 - Kosakos 5




## **PUBLIZITATEA**


BERUNIK GABEKO GASOLINA • MICHELIN AGENTZIA • GURPIL NEURKETA  
PRESIOZKO GARBIKETA • GARBIKETA NEUMATIKOA • ASPIRAGAILUA

# REZOLA GASOLINDEGIA

*Zorionak BARREN!*



Ibaitarte kalea 3 - 167 Postakutxa  
Tel. (943) 74 26 69 - 74 44 38 - FAXA (943) 74 30 77  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



- ELETRONIKA INDUSTRIALA
- INFORMATIKA INDUSTRIALA
- PROZESUEN  
AUTOMATIZAZIOA
- INGENIERITZA ETA  
FABRIKAZIOA

**MASERek zorionak luzatu nahi dizkio BARREN aldizkariari  
eta bere lantalde guztiari orain arte egindakoagatik!**





## Jalgi hadi euskaraz Korrika

Korrikaren 9. edizioa gaur, martxoak 17, hasi da Donibane Garazin. Datorren ostegunean, hilak 23, Elgoibartik pasatuko da, gaueko 1,15ak aldera. Hori dela eta AEK-k zenbait ekintza antolatu ditu, gauera arteko denbora ahalik eta arinen pasa asmoz.

**E**uskara zuzpeltu eta dirua atera asmoz antolatzen du AEK-k Korrika bi urtetik behin. Irteera lekua Donibane aukeratu izanak hiru arrazoiri erantzuten dio: aurten 450 urte betetzen dira Etxeparek lehen liburua euskaraz argitaratu zuenetik, aurretik ez da inoiz Donibanen hasi izan eta herri osoa euskalduna da. Korrika Gasteizen amaituko da martxoaren 26an. Edizio guztietan omendu bat egoten da eta aurten Mikel Laboa izango da.

Dirua ateratzeko Korrikaren inguruan zenbait ekintza antolatzen dira, besteak beste, materialaren salmenta, *Korrika Lagun* deitzen dena, honen bidez dendariak borondatea ematen dutelarik Korrika lagundu



SOARTE

### ■ ■ Ostegunean gaueko 1,15etan pasako da Elgoibartik Korrika.

asmoz eta, azkenik, kilometroak saltzen dira. Elgoibartik 10 km. dagozkie aurten, Saturixon hasi eta Azkarateko tunel berrira arte. Kilometro bakoitzaren prezioa 25.000 ptakoa den arren, kopuru hori simbolikoa da, hala nahi duenak gutxiago edo gehiago eman dezake eta. Astearterako herriko 11 taldek zituzten erosiak kilometroak eta oraindik beste askoren erantzunaren zain zeuden. Aurten ostegun gaueko 01,15etan pasako da Korrika Elgoibartik. Hori dela eta zenbait ekintza antolatu dituzte. Arratsaldeko 15,00etan hasita OHoko ikastetxee-

tako haurren Korrika Txikia burutuko da Maalan hasi eta herriko kaleetan zehar. Gero, Plazan Elgoibarko Izarrako Bertsolari Eskolako haurrek parte hartuko dute eta ondoren, talde bereko begiraleek berbena antzeko bat antolatuko dute ume guztiekin. Gau partera trikitilari eskolako kalejira izango da eta 9,30ak aldera afari herrikoia Plaza Haundian. Afaria girotzeko Meabe eta Ziarda bertsolariak eta trikitilariak arituko dira. Korrikaren ordua iritsi bitartean beste zerbaite ere antolatzeko asmoa dute, oraindik zehaztu gabe dagoen arren.

ARMUETA

**Isabel Ormazabal**



Harategia Urdaitegia

*Zorionak orain arte egin duzuen lanagatik!*

San Bartolome, 16. Tel: 74 06 40

Ametza

KAFETEGIA

Zorionak BARREN egiten laguntzen duzuen guztioi!






**OSPAKIZUNAK  
BARREN**

**100.**

*zenbakia*

**XABIER LETE**

**Martxoak 18, larunbata  
Herriko Antzokian  
Gaueko 10,30etan**



**EUSKADI**





# MERKATU TXIKIA

## Etxebizitzak

PISU BAT alokatzen dut. Altzari eta guzti.  
☎ **74 32 45**  
Lan orduetan

3 hilabetetarako bi bainu gela dituen ETXE BAT alokatuko nuke.  
☎ **74 41 32 Edurne**

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.  
☎ **74 16 57**

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.  
☎ **74 32 98**

LAGUN BAT BEHAR DUGU Donostian, Gros auzoan, pisu bat osatzeko.  
☎ **29 11 10 Jontxu**  
Gauetz 10etatik aurrera

## Lana

ENPRESA ZIENTZIETAN LIZENTZIATUAK kontabilitate balantzeetarako analisi eta auditoriako partikularrak ematen ditu. Maila guztiak.  
☎ **74 03 95**

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.  
☎ **74 39 89 Mari Karmen**

Neska euskalduna ETXEKO LANAK edota UMEAK ZAINTEKO prest dago. Goizez.  
☎ **74 09 02 Kristina**

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.  
☎ **74 43 16 Mari Karmen**  
Goizez

Edozein testu mota ORDENAGAILUZ PASATZEN DA. Grafikoak sartzeko aukera.  
☎ **74 41 77 Idoia**  
☎ **74 22 77 Iratxe**

## Bestelakoak

TXIRRINDULARI KASKO BAT eta ANTIOJUAK GALDU nituen hilaren 12an BBV aldameneko kailejoian. (Biona pentsuen parean). Jaso dituenak mesedez deitu.  
☎ **74 42 93**

HISTORIALARI BAT eskaintzen da genealogia egiteko.  
☎ **88 30 72 Arkaitz**  
Iluntzeko 8etatik aurrera

HAUR KAZADORA BAT agertu da Kultur Etxeko ganbaran. Urdina da manga zuriekin eta atzean Maiz jartzen du. Jabeak Udaltzaingora jo dezake.

URREZKO KATE BAT galdu dut. Inork aurkitu badu, mesedez deitu.  
☎ **74 32 48**

GITARRAKO KLASEAK hartuko nituzke, norbait klaseak emateko prest balego.  
☎ **74 09 02**

CARITASEk sukalderako eta salarako ARMARIO BAT behar du.  
☎ **74 15 09** ☎ **74 12 57**

## Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.  
☎ **74 39 19**

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m<sup>2</sup> eta bi planta.  
☎ **74 25 01 / 10 82 43**

GARAJE itxi bat saltzen dut santa Ana 46 zenbakian  
☎ **74 13 67**

GARAJE BAT alokatzen dut San Roken, 5 zenbakian. Marraduna.  
☎ **74 02 61**

GARAJE BAT daukat alokatzeko San Rokeko pista beltzean. Marraduna.  
☎ **74 21 64**

Marradun GARAJE BAT saltzen dut. Santa Ana 6.  
☎ **74 02 81**  
9etatik aurrera

## Salerosketak

LAKAL BAT DAUKAGU SALGAI Foruen enparantzako arkupeetan. Lehen Iturri taberna izandakoa.  
☎ **74 13 77**

SUKALDE BAT saltzen dut. Txikia, altzariekin eta egoera onean. Prezio egokia.  
☎ **74 33 19**  
Ordubatetik 3etara

SALA OSO BAT saltzen dut. Armarioa, tresilloa eta bi silloi txiki. Egoera onean.  
☎ **74 33 19**  
Ordubatetik 3etara

YAMAHA TZR 80 cc BAT saltzen dut. Oso ondo dago. Prezio interesgarria.  
☎ **74 41 12 Nekane**

CUERPO MINOLTA 7.000 BAT saltzen dut. Prezio oso interesgarria.  
☎ **74 04 38 / 74 08 00 Aitor**

2 urtetako SIBERIAN HASKY BAT saltzen dut. Papelak dauzka eta pedigreea ere bai.  
☎ **74 38 41**

BMX KLASERAKO BI BIZIKLETA saltzen ditut. Bata Peugeot markakoa, oso ondo zainduta, eta bestea Huch (USA) markakoa: kuadro orijinala, bakarra, frenoak, llantak eta manillarrak erregalatur.  
☎ **74 34 05**

MUSIKA KATE BAT saltzen dugu. Philips markakoa, erabili gabea eta berri-berria. Gauetz deitu.  
☎ **74 26 26 / 74 20 31**

Randy markako PATIN BATZUK (bi errobera aurrean eta bi atzean) saltzen dira. 37 tailakoak. 4.000 pta.  
☎ **74 17 60**

## PREMAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Planning .....742950  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia)..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitala..756264  
Drogomenpekotasun Z..741008  
Odol Emailak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....112131  
Taxi Geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....744415  
Kultura Zerbitzua .....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
Elgoibarko Izarra.....741626  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Parrokia .....740842  
Polikiroldegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Institutua .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 22 67  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....11 84 21  
Deia .....74 11 57  
Zazpiki .....74 34 74





## ASTEAN ZEHAR

### OSTIRALA

**22,15 ZINEA**

"Alargunen gailurra"  
Antolatzailea: BARREN  
✓ Herriko Antzokian

### LARUNBATA

**22,30 XABIER LETEREN KANTALDIA**

✓ Herriko Antzokian  
Antolatzailea: BARREN

### IGANDEA

**11,00, 11,30, 12,00 BARREN KROSA**

**12,30 UDAL BANDAREN KONTZERTUA**

✓ Herriko Antzokian

**16,30-19,30-22,15 ZINEA**

"Rio salvaje"  
✓ Herriko Antzokian

### ASTELEHENA

**22,15 ZINEA**

"Rio salvaje"  
✓ Herriko Antzokian

### ASTEARTEA

**22,15 ZINEA**

"Alargunen gailurra"  
Ikuslearen eguna  
✓ Herriko Antzokian

### OSTIRALA

**20,00 TANBORRADAREN BILERA**

✓ Kultur Etxean

**22,15 ZINEA**

"Acoso"  
✓ Herriko Antzokian

## Korrika

**23, osteguna**

**15,00 Korrika txikia**  
Maalan

**15,30 Elgoibarko Izarrako BERTSO ESKOLAKO HAUREN SAIOA**

**Ondoren, BERBENA**

**21,30 AFARI HERRIKOIA,**  
bertsolari eta  
trikitilariekin  
Plaza Haundian

**01,15 KORRIKA**  
Sigman



## ZINEA



### "Rio Salvaje"

Zuzendaria: curtis Hanson.  
Antzesleak: Meryl Streep,  
Joseph Mazzello, David  
Strathairn, Kevin Bacon eta  
John C. Reilly.

Gail, garai batean rafting arriskutsuak jeisten espezialista izan zena eta Tom bere senarra astebukaera bat naturarekin kontaktuan pasatzera joaten dira semearen urtebetzea ospatzeko. Baina, erreka jetsiera zirraragarri bat izan behar zena ametsgaizto bihurtzen da ihesi dabiltzan hiltzaile batzuekin topo egiten dutenean.

**BARREN 100.**  
*zenbakia*

## ERAKIZUNAK

*17, ostirala*

**22,15 ZINEA**

Alargunen gailurra  
Herriko Antzokian

*18, larunbata*

**17,00 PAILAZOAK**

(OHoko 1, 2, 3 eta 4. mailakoentzat)  
**POTI, KIKI eta KIRIKI**  
Kultur Etxean

**18,30 KARAOKE LEHIAKETA EUSKARAZ**

(OHoko 5,6,7 eta 8. mailakoentzat)  
Kultur Etxean

**22,30 XABIER LETE**

Herriko Antzokian

*19, igandea*

**I BARREN KROSA TXANKAKUA SARIA**

**11,00 Alebinak**

**11,30 Infantilak**

**12,00 Nagusiak bikoteka**  
(Irteera BARRENen eta  
Helmuga Plaza Handian)

**14,30 BAZKARIA**

Kiroldegian

## txandak

### FARMAZIAK:

| EGUNA           | EGUNEZ   | GAUEZ    |
|-----------------|----------|----------|
| 18, larunbata:  | Yudego   | Yudego   |
| 19, igandea:    | Yudego   | Yudego   |
| 20, astelehena: | Bidasolo | Bidasolo |
| 21, asteartea:  | Bidasolo | Bidasolo |
| 22, asteazkena: | Bidasolo | Bidasolo |
| 23, osteguna:   | Bidasolo | Bidasolo |
| 24, ostirala:   | Bidasolo | Bidasolo |

### OKINDEGIA:

**12, igandea: ZABALETA**



**DIARRAGA**

**KAFETEGIA eta OKINDEGIA**



**KO OGIAK  
GURE LABEETAN EGINDA  
ESKAINIKO DIZKIZUGU**



**Jonionak BARREN**  
*eta eskerririkasko*

*elgoibartarrengana  
hurbiltzeko eskaini  
diguzuen aukeragatik*

**Bolleria**

**Okindegia**

**Egunean erretako kafea**



ERREMINTA  
MAKINA  
INSTITUTUA



■ HIZKUNTZAK:

- Alemana
- Frantsesa
- Ingelesa

■ Cambridge-eko Unibertsitateko azterketetarako prestakuntza (P.E.T., First Certificate, C.A.E. eta Proficiency)

■ MAILA GUZTIAK

## **INGELES IKASTARO TRINKOA**

- **MAILA:** Ertaina
- **ORDUTEGIA:** 6:30-8:30 astelehenetik ostegunera
- **DATA:** Apirilaren 3tik ekainaren 22ra (84 ordu)
- **MATRIKULA:** Martxoaren 31a arte



### **INFORMAZIOA ETA MATRIKULA**

ILS (Industry Language Services) • IMH EDIFIZIOA • SAN ROKE AUZOA, 1 • 20870 ELGOIBAR  
TEL. (943) 74 41 32 • FAX (943) 74 41 53




# BARRENi buruzko IKERKETAREN EMAITZAK

**100** zenbaki atera ditugu dagoeneko. 100 aste hauetan BARREN etxe askotan izan da, esku askotatik pasa da eta begi askok irakurri du. Denbora tarte honetan zenbait berrikuntza egon da, kolorea sartu dugu, atal eta gehigarri berriak... Guztien gustuak asetu nahi izan ditugu. Halere, irakurleon iritzia jakin nahi genuen, gure bidean jarraitu eta, behar izanez gero, aldatu beharrekoak aldatzeko. Hona hemen Ainhoa Azkarate soziologoak zuzendu duen BARRENi buruzko ikerketak eman dituen emaitzen laburpena.

## IRITZI OROKORRA

### Nola definituko zenuke BARREN astekaria?



*BARREN herriko gaiet buruzko informatzailea eta herriko komunikabidea da % 86aren ustez*

## FITXA TEKNIKOAK

- **Esparrua:** Elgoibar
- **Unibertsoa:** BARREN jasotzen duen Elgoibarko biztanleria (2.375 etxebizitza)
- **Laginaren tamaina:** 224 etxebizitza-inkesta
- **Inkestaren data:** 1994ko abendua
- **Inkestaren konfidantza maila:** % 95
- **Laginaren errorea:** % 5,6
- **Zuzendaritza teknikoak:** Ainhoa Azkarate SOZIOLOGOAK Eibarren jaioa duela 23 urte




## IRAKURLEAREN PERFILA


Aldagai hauen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- **Sexua:** Emakumea
- **Adina:** 16-30 urte bitartean
- **Ikasketak:** Lehen mailako ikasketak
- **Lan iharduera:** Langile kualifikatua
- **Zenbat urte Elgoibarren?** Betidanik Elgoibarren bizi da
- **Euskara maila:** Euskaldun zahar alfabetatu gabea

## Zein da irakurlearen adina?




### Zenbatero irakurtzen duzu **BARREN**?



*% 89ak  
BARRENi  
buruzko iritzi  
ona eta oso  
ona dauka*

### Zein iritzi duzu astekariaz?




## EUSKARA

### Nolakoa da irakurlegoaren euskara maila?




### Ba al duzu **BARREN** irakurtzeko zailtasunik euskarari dagokionez?



*Irakurlegoa batez ere euskaldun zaharra da (% 86) eta erdia baino gehiago (%56) euskaldun zahar alfabetatu gabea*


*Irakurlegoaren erdiak nahiago du elgoibartarrez irakurtzea*

### Zer nahiago duzu euskara batuan ala elgoibartarrez idatzi dadila?




## ITXURA


### Gustatzen al zaizu formatoa?



### Gustatzen al zaizu maketazioa?



### Nolakoak dira zure ustez argazkiak?



## ATALAK

### Zein da gehien irakurtzen duzun atala?

#### BETI- GEHIENETAN

- Eta zure ustez? (Kale inkesta)
- Bata ala bestea
- Erretratu zaharra
- Astean zehar
- Galderak, kekak eta txaloak
- Kirola
- Motzian kontatzekuak


#### BATZUTAN

- Aste honetan
- Kultura
- Eskutitzak
- Berbetan
- Gaztaroa Aro Eroa
- Merkatu Txikia
- Erreportaia
- Gogoratzuz
- Enpresetatik bueltan

#### GUTXITAN

- Udaletxetik Udalerrira
- Zenbat buru hainbat aburu
- Bertsotan
- Txokorik txoko


### Zein gehigarri duzu gustokoen?



*Gehien irakurtzen dena kalean egindako galdeketa da eta gehigarri gustokoena, berriz, txikiBARREN*


## NEUTRALITASUNA

**BARREnek alderdi politikoren batekin loturaren bat duela uste al duzu?**




## PUBLIZITATEA

**Zer nolako arreta eskaintzen diozu publizitateari?**



## DIRULAGUNTZA


**Elgoibarko Udalak zenbateko dirulaguntza eman beharko lioke BARREni?**




*%81ak Udalak aurrekontuaren %50a edo gehiago finantziatu beharko lukeela uste du*

## HERRI KOMUNIKABIDEA


**Herri komunikabide baten beharra zegoela uste al duzu?**



**Asetzen al du BARREnek behar hori?**



**Herriko informatzaile ona dela uste al duzu?**




# BARRENi buruzko IKERKETAREN EMAITZAK

**100** zenbaki atera ditugu dagoeneko. 100 aste hauetan BARREN etxe askotan izan da, esku askotatik pasa da eta begi askok irakurri du. Denbora tarte honetan zenbait berrikuntza egon da, kolorea sartu dugu, atal eta gehigarri berriak... Guztien gustuak asetu nahi izan ditugu. Halere, irakurleon iritzia jakin nahi genuen, gure bidean jarraitu eta, behar izanez gero, aldatu beharrekoak aldatzeko. Hona hemen Ainhoa Azkarate soziologoak zuzendu duen BARRENi buruzko ikerketak eman dituen emaitzen laburpena.

## IRITZI OROKORRA

### Nola definituko zenuke BARREN astekaria?



*BARREN herriko gaiei buruzko informatzailea eta herriko komunikabidea da % 86aren ustez*

## FITXA TEKNIKOAK

- **Esparrua:** Elgoibar
- **Unibertsoa:** BARREN jasotzen duen Elgoibarko biztanleria (2.375 etxebizitza)
- **Laginaren tamaina:** 224 etxebizitza-inkesta
- **Inkestaren data:** 1994ko abendua
- **Inkestaren konfidantza maila:** % 95
- **Laginaren errorea:** % 5,6
- **Zuzendaritza teknikoak:** Ainhoa Azkarate SOZIOLOGOIA Eibarren jaioa duela 23 urte



## IRAKURLEAREN PERFILA

Aldagai hauen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- **Sexua:** Emakumea
- **Adina:** 16-30 urte bitartean
- **Ikasketak:** Lehen mailako ikasketak
- **Lan iharduera:** Langile kualifikatua
- **Zenbat urte Elgoibarren?** Betidanik Elgoibarren bizi da
- **Euskara maila:** Euskaldun zahar alfabetatu gabea

## Zein da irakurleagoaren adina?

